

“DEBEKUA BAINO LARRIAGOA DA IKUSEZIN BIHURTZEA”

Mende erdia darama kantuan Mikel Laboak eta solasaldi hau ere kantuz josi du. Urteak laster joan direla dio penaz. Laster joanak agian, baina urte beteak izan dira, emankorrak. Ehunka kontzertu, kantu, doinu eta 15 disko eman dizkigu. Eta aurtengo neguan iritsiko da berririk: Elkarrek plazan jarriko duen Mikel Laboari buruzko DVDa. Bitartean errekonozimendu eta sariak jasotzeko sasoia du antza, artean Gipuzkoako Urrezko Domina.

Zorionak Mikel, sari berri bat irabazi duzu. Zer da sari berri hau zuretzat? Zuk esan duzun bezala eskertu behar dudan errekonozimendua.

1962 urtean kantatu zenuen lehen aldiz euskaraz jendaurrean Zaragozan. Geroztik euskal kantagintzari emandako bizitza izan da zurea; 45 urte joan dira.

Bai, Zaragozako “Teatro Argensolan” izan zen. Orduan hasi eta 1980. urtean (Lau, Bost, LP bikoitzean), Mendiageren hitzak erabiliz “Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi det bizi...” esaten nuen bezala, bizi izan naiz. Ederra izan da. Pena, urteak laster joaten direla!

Mikel Laboa zale garenok asko zor dizugu, emozio eder asko sentitu arazi diguzulako.



“Gutxiengoaren ekarpenak oso garrantzitsu dira”

Zerk emozionatzen zaitu zu?

Gauza askok. Bizitzak hunkitzen nau.

Zure kantari bizitzak eman dizun onena zer da?

Lagunak beti izan dira garrantzitsuak niretzat eta “musika+zuzeneko aktuazioak” funtsezkoak izan dira.

Zuk sortutako kantuen artean zein duzu kuttunena?

Asko ditut oso maiteak.

Bereziki oroitzapen on eta samurrik baduzu kontzerturen batekin?


Kontzertu asko maite izan ditut eta oroitzen ditut.

Oholtza gaineko “beldur eszenikoa” delakoa aipatu izan duzu maiz. Urtetako ibiliak erakutsi al dizu menderatzen?

Bai, beti izan dut “beldur eszenikoa”. Dena dela, 60ko hamarkada eta 70ko lehenengo urteak izan ziren traumatikoenak.

Zure kantari jardunean zentsura ezagutu duzu zuzenean. Gaur egun ere kantaldiren bat debekatzea gertatzen da.

Debekua baino txarragoa oraindik, ikusezin bihurtzea izan daiteke.



Zumeta, Jose Luis Zumeta pintore usurbildarra, Mikel Laboaren langun handia da. Berak egin dizkio 1969 urteaz geroztikako disko azal guztiak (aurreko hiru diskoen azalak Forkadarenak ziren). Zumetarenak dira, baita ere, Laboaren promoziorako karteletako irudiak.



Zuk bide berria egin duzu tradizioa begi bistaz galdu gabe. Berdin estimatzen al da oraindik ere tradizioa?

Bai. Euskaraz kantatzen hasi nintzenean (Oh Pello, Pello; Bereterretxen kanthoria...) denboran atzera joan nintzen, kanta hauek liluratu nindutelako eta gure tradizioa ezagutzea garrantzitsua iruditu zitzaidalako. Dena den, urte horietan (60ko hamarkadaren hasieran) kanta haiek estimatzen zituztenak “minoria” bat zen. Geroago, gutxiengo hori handitu egin zen, baina hala ere ez dut uste inoiz “mayoria” bihurtu zenik.

Gaur egun erdal munduak ez al du euskal kulturarekiko jakinmin txikiagoa lehen baino? Edo agian euskaldunok bizi gara kanpokoaz kezkatuegi, ez al dugu apur bat gure baitakoa ahaztu?

Gaur egun, ziur asko, gauzek nahiko berdintsu jarraitzen dute; dena dela, kultura eta arte munduan, “minorien” aportazioak askotan oso garrantzitsuak izaten dira. Atxagaren hitzak gogoratu nahi nituzke:

Gure hitzak esan berriz esan ez daitezela ahaztu ez daitezela gal, elur gainean txori hanka arinek utzitako arrasto sail ederra bezalaxe.

Gazteak beti izan dituzu hurbil; artista belaualdi berriek gertutik jarraitu izan dute zure jarduna. Non dago zure gazteenganako erakarpen horren sekretua?

Hurbiltasun hori ederra izan da niretzat eta sekretua zein den ez dakit.

Jarraitzen al duzu euskal musikagintza? Ba al dator erreleborik?

Bai, erreleboa badago. Izenak ez ditut aipatu baina bai euskaraz egiten den musikan eta baita jazz eta garaikide musikan ere, jende oso ona dago. Agian “minoritarioak” izan dira, baina aurretik ere arte munduan “minoriek” duten garrantziaz hitz egin dugu. Eta literatur sorkuntza? Zein liburu duzu unetan eskuartean?

Aspaldi honetan gutxi irakurtzen dut.

Aurki iritsiko da Mikel Laboaren ibilbide osoari buruzko DVDa. Zer aurkituko dugu bertan?

Nahiko nuke egileek eta parte hartzen dutenek lan ona egitea.

Gipuzkoa Aldundiak emandako saria jaso duzu orain, bizitza osoko kultur lanari aitortza. Eta zuk, nori egin nahiko zenioke aitortza?

Era desberdinetan lagundu didatenei (publikoa barne) eskerrak emango nizkieke.

Bukatzeko bi izen propio:

Zumeta

Pintore handia eta lagun mina.

Marisol

Erantzun gabe...

Bioi (Marisol eta niri) asko gustatzen zaigun kanta baten hitzekin bukatu nahi nuke.

Berriro Atxagaren poema batekin:

ORDUAN

Arratsero urreztatzen zen ibaiaren ertzetatik ibiltzen ninduan orduan, ni jaio aurretik hila hintzela pentsatuz, edo nire heriotzeko uda berberan sortuko hinduala lurrak laranja urez elikaturiko sagarrondoaren mihura bezala. Espaloi orotan bilatzen ninan hire soineko gorri eta urdina.

Gero, zakarrontzietako hondakinen balioaz eztabaidatu gintunan, eta bidaia luzeren probetxuari buruz; Eta udazken hartan, izen ugari emakumea bihurtu hintzenan, Casiopea eta Pollux, edo Isis and Pandora, eta Bereniceren ilea, elemental Mister Watson;

Astelehen edo astearte batetan, gogo higan nuela, Nire seksoan aurkitzen dun, qué barbaridad, Bagdad idatzi ninan gaez, Nire zerebroan hazten ditun Canadako basoak; Baina hi heu basorik arbatsuena.

Orain, hire maitale traketsa naün, maitatzen haurat, etcetera, Negu bezperetan etcetera, etcetera.